“Gizarte Zentroko taberna martxan jarri eta zerbitzu ona emateko gogoz nago”

LEGAZPIKO UDALA. Aitor Imaz Gizarte Zentroko taberna-jantokian aurkitu dugu, azken prestaketak burutzen eta lokala atontzen. Inauguraziorako dena prestatzen ari dela ziurtatu digu.



- **Nola animatu zinen Gizarte Etxeko taberna-jantokia errentan hartzera?**

Ni Hondarribikoa naiz, eta Legazpiko lagun baten bidez jakin nuen berria. Berak esan zidan Udalak Gizarte Zentroko taberna-jantokia lizitazio bidez alokatzeko aukera eskaintzen zuela. Nire eskaera aurkeztu nuen, eta Udaleko arduradunekin hitz egin ondoren, hemen nago.

- **Hondarribikoa zara, ezagutzen zenuen edo izan zara inoiz Legazpin?**

Bai, nire lagunarekin behin baino gehiagotan egon naiz, eta Oñatiko lagun bat ere badut, Legazpira asko etortzen zena eta lagunekin askotan bat egin dudana.

- **Ezagutu duzu Gizarte Zentroko taberna-jangela, zer iruditu zaizu? Zein aukera ikusten diozu?**

Lokala haundia da eta aukera asko dituela uste dut. Martxotik itxita dagoela esan didate, eta uste dut garaia dela martxan jartzeko eta bizitza eta egunerokotasuna emateko. Kafeak, edariak, menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar eskaintzeko eta zerbitzu ona emateko gogoz nago.

- **Pentsatu al duzu beste berritasunik edo ekarpenik egitea?**

Bai, esan didate ostegunetan pintxo-potea dagoela, eta interesgarria iruditzen zait hemen ere eskaintzea, jendea hurbil dadin. Igandetan ere, paella moduko plater bereziak eskaintzea pentsatu dut.

- **Sukaldaritzan esperientzia duzu, non lan egin duzu lehenago?**

Bai, nik beti esaten dut elkarteko sukaldaria naizela. Hondarribian Klink elkarte gastronomikoko kide naiz eta beti antolatzen ditugu bazkari solidarioak, koadrilakoak eta era guztietakoak. Hortxe aritzen naiz gustura, sukaldearen bueltan. Gainera, Bidania-Goiatzen taberna jatetxe bateko arduraduna izan naiz urteetan.

- **Prest al zaude Legazpiko etapa berri honetarako?**

Motibatuta nago eta Legazpiko Gizarte Zentroko taberna-jantokiaren gidaritza hartzeko gogoz eta era guztietako aukerak eskaintzeko irrikan, hala nola, menuak, pintxoak, ogitartekoak, etab.